

# **LUDIKO LORATEGIAK**

Ba-da Suezia'n ipar-obao baiño gorago, Abrisko izena dauan erri koskor bat. Zoaz ara eta itaundu egiozu gelto-kiko tren-zaiñari: Zergaitik urestatzen dozuz neguko zure landarategiak edur-denporan? Eta berak erantzungo dau-tzu: Auxe dalako nik ainbeste maite dodan lorategia.

Guk be geure lorategitxuak daukaguz balkoietan eta bazterretan, ondo maite doguzanak gaiñera.

Dakigunez, lorategien lenengo saioak ez ziran izan Babilonia'ko zintzillik egozan areik, lenagokoak dira. Ez dausku iñok idatzita itzi albisterik, baiña Pertsia'n, orain iru milla urte, ba- egozan olako lorategiak.

Nilo ibaiaren uriolak dira Ejipto'n lurra ain emonkor egiten dabenak. Ba-ziran an lorategi ederrak eta luzaroan izan ziran erregeen apaingarriak. Oneik urrutira bialtzen ebezan menpekoak usain gozozko lora-landarak ekarteko.

Erdi-aroan eta batez be berbizkunde aldian Italia'ko lorategiak edertizko baratzak ziran eta orregaz asko poz-tuten ziran.

Lur Santuetara ibillaldiak egiteko sasoia etorri zanean, ara joaten ziran zaldunak lora barriak ekarri ebezan.

Begien atsegin utserako sortzen ziran lorategiak ez ziran asko, baiña 1494n. urtean VIII Karlos erregeak arte-zale italiarrak bialdu ebazan Amboise'ra eta arein artean lorazale bat joian.

IV Enrike errege zala, Mollet Klau-dio'k lora-baratz batzuk eratu ebazan, orduko jantzi apainduen antzekoak. Jau-regi askoren inguruan agertu ziran gero olako baratz ederrak.

Baiña Le Notre izan zan Frantzia'ko erara lenengo lorategiak egin zituana. Ikusgarriak benetan Versailles eta ingu-ruko loretegi miragarriak. Lora-baratz areik egokiak ziran lagunak artzeko eta jaiak ospatzeko: Ibiltegi ederrak,ur-izpi-llu ikusgarriak, iturriak... alkar osotzen eben.

Amaika erri alegindu dira lorategi ederrak zaintzen!

Ingaterra'ko lorategiak ez dira Fran-tzia'koen antzekoak. Zugaztiak etxe-ondoetara eltzen dira eta orrekaz nas-tean agertzen dira lorak

Baiña lorategirik arrigarrienak Ara-bia'n dagoz. Nagusiarentzat eta lagunent-zat eratzen dabez. Barruti itxietan dagoz, burdiñezko sareakaz inguratuta, ur ibltar-rien mur-murra doi-doi entzuten dala.

Lorategirik entzutetsuen bat Grana-da'ko Jeneralife'n dago.

Japondarrak lorategi txikiak eta asko daukez.

## **LARROSEA**

Lora guztien artean erregiñea, larrosea da. Guztien artean ederrena dala dirudi. Olerkariak euren gai lez beti artu izan dabe larrosea.

Persia'n sortua da eta gurutz-gudariak ekarri eben 1254n. urtean Damasko'tik, eta VIII Karlos erregeak lurrean sartu ebazan Paris'en, Bastilla egiten asi ziranean. XVIII gizaldiaren azkenerantza ez ziran ezagutzen 30 mota larrosa baiño eta orain amar milla mota inguru dagoz.

Bagatella'n larroseari urtero jai bat egiten dau-tsoe.Beste leku batzutan be gero asi dira jai ori ospatzen.

"Larrosa bi"rena esaten jakon gudaldian, larrosea zan ikurriña.

Ba-dakizue sortaldean larrosak gozoki eginda jaten dabezela?

Lora au beti zaindu da munduan ardurarik aundienaz, baiña lorea bera apur bat basatia da, izan be basoko larro-sen ondorrengo dogu. Larrosa azia erein ezkerro, beti urteten da basoko larrosea, txertatu egin bear da beste larrosa-mota bat sortzeko.

## **IDI-BIOTZA EDO TULIPANA**

Lora onek ibillaldi aundia egin dau: Turkestan'en asi eta onaiño etorri da.

Turkiarrak ekarri eben XVI gizaldian Europa'ra eta abegi ona egin jakon gure artean. Frantze'ko ta Olanda'ko itxas-ontziak joan bear izan eben urrutiko bere sorterritik ekarteko.

Lora jantzia zuria dauko baiña bio-tzean beste margo batzuk be bai.

Orain Olanda'n dauko sorterrri barria, ainbeste mota dagoz bertan. Eta XVII gizaldian dirutza aundiak emoten ebe-zan lora onen zale ziran olandarrak, baiña zori txarrekoa izan zan tulipan bal-tza sortu ebana: Espetxean bizi bear izan eban.

Harlen'en tulipan'en boltza bat sortu eben eta neskatilla baten ezkon-saria zelakoa izan zan adierazteko, zenbat tulipan zituan itauntzen zan.

Izan ziran idi-biotz edo tulipan onen zale batzuk, eurak il baiño lenago olako lora guztiak zapuztuteko agindu ebenak, arein ederra beste iñok gozatu ez egian.

Bai ederra kukulu garbia dauan lora au! Nok aitzu udabarrian zelaietan edo aize-errotan inguruan edo urbide isille-tan, txalupak txirristan doazela, ikusita-ko idi-biotzak,tulipanak?

**OLAZAR'tar Martin'ek moldatua.**

